

# Emakume Aske eta Borrokalariak

Feminismo iraultzaile eta antikapitalista



## Feminista antifaxistak PALESTINAREKIN

Israel HILTZAILE,  
Europa babesle!



# LGTBIfobiaren eta faxismoaren aurka: KLASEKO HARROTASUN IRAULTZAILEA!

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Hau da eskuinaren eta eskuin muturraren, sekta katolikoen eta Elizaren hierarkiaren benetako aurpegia. Diana-eren erdian jarri gaituzte LGBTI kolektiboa, emakumeak, etorkinak eta, oro har, langile klasea, 40ko hamarkadara atzera egin dezagun, armairura itzul gaituzten, gure sexualitatea beldurrez, lotsaz eta isilpean bizi dezagun, diktadura frankistan hainbat eta hainbat pertsonak sufritu zuten bezala.

Ez dugu onartuko. Ez dugu onartuko beren indarkeria LGBTIfobikoa eta faxista ikasgeletan eta kaleetan hedatzea. LGBTI gazteek, lesbianek, gayek, bisexualek, trans pertsonak.. argi dugu: eskuin muturra geldiarazteko bide bakarra kaleetan borrokatzea da.

Erreakzioaren alderdi politikoak, enpresariak eta bankariak, epaileak, apai-

zak eta gotzainak, gure ageriko etsaiak dira. Eta manifestazio feminista bakoitzean, Harrotasun Kritiko bakoitzean, gure eskubideen aldeko protesta bakoitzean, arlo publikoaren alde borrokatzea ateratzen garenean eta Palestinak jasaten duen genozidio sionistaren aurka manifestatzen garenean... gerra deklaratu diegu, haiei eta beren sistemari.

## Propaganda gutxiago eta justizia sozial gehiago

Baina urtero gogorarazi behar izaten dugu eskuinak oso lankide fidagarria duela PSOEn baitan, indarkeria LGBTIfobikoa zabaldu dadin. Gobernu "aurre-rakoiak" babesa ematen digun itxura egin dezake eta LGBTI arloan "hainbeste aurrerapauso" lortu direla sinestarazten saia

daiteke. Baina Trans Legea grinaz erasotzen badute, epai judizial patriarkal defenatzen baditu, legeak bozkatzeko PPrekin bat egiten badu, Emakumeen Institutuaren buruan transfobo bat ezartzen badu, protesta soziala eta migratzaileak jipoitzea bidaltzen eta naziak biguntasunez tratatzen... Nahi dutena esango dute, baina politika horiekin ez dira kokatzen LGBTI mugimenduaren alde eta ez da eskuin muturra geldiarazten.

Ez dugu hitz-jario merkerik nahi, ezta ekainaren 28an ostadar ikurrarekin tweet asko egitea ere. Beldurrik gabe eta aske bizi nahi dugu. Eta horretarako, hezkuntza sexual inklusiboa nahi dugu, eta Eskola Publikoan baliabide nahikoak egon daitezela eskola-jazarpeneren aurka borrokatzeko. Estatuaren apa-

ratutik eta Epaitzatik frankistak kanporatzea nahi dugu. Benetako justizia nahi dugu biktimentzat, eta zigor eredu-garriak erasotzaileentzat. Etxebizitza izateko eskubidea bermatua, enplegua izateko eskubidea, guztiontzako hezkuntza eta osasun publiko duina nahi dugu. Atzerri-tarren Legea eta Mozal Legea indargabetea nahi dugu.

Ez dugu onartuko sistema kapitalista eta patriarkal honek gu zapaltzea. Gure indarra kalean borrokatzea datza. Ez diogu utziko merezi dugun askatasunaren eta duintasunaren alde borrokatzeari.



## ERRUSIAKO IRAULTZA ETA EMAKUME LANGILEAREN ASKAPENA

*Gertaera argi eta eztabaida ezina da, emakumeen parte-hartzerik gabe, Urriko Iraultzak ezin izango zukeela Bandera Gorria garaipenera ekarri*  
(Alexandra Kollontai)



2024 honetan, Leninen heriotzaren mendeurrena ospatzen dugu, 1917ko errusiar iraultzaren buruzagi nabarmenetako bat. Ezagutu gure argitalpenak jakiteko nor izan zen, zer defendatu zuen eta Boltxebikeen Alderdiak zer ekarpen egin zizkion emakume langilearen askapen borrokari.



# GAZAKO GENOZIDIO SIONISTARI EZ!

Netanyahuren gobernu sionistak, supremazistak eta kolonialistak Israelgo Estatuaren sortu zenetik egin duen sarraskirik bortitzena aurrera darama Palestinako herriaren aurka. XXI. mendean, AEBen, Europar Batasunaren eta Europako gobernuen laguntzaz, gure begien aurrean ankerkeria izugarria gauzatzen ari da herritar errugabe eta babesgabeen aurka.

Sarraskia larriagotzen ari den bitartean, milioika gara Gazarekin elkartasuna adierazteko mugimendua zabalitzen ari garenak. Bost kontinenteetan manifestazio andana izan da eta uni-bertsitateetako ikasleen borroka ere hedatu da, AEBetatik Mexikora, Britainia Handia edo Frantziako eta Espainiako Estatuera, Euskal Herria barne noski.

Palestinar herriaren ondoan gaude, bere sufrimenduaren eta erresistentzia eredugarriaren ondoan, eta horregatik Mendebaldeko inperialismoak sarraskian duen konplizitate zitala salatzeke betebeharra dugu.

Era berean, Pedro Sanchez eta Yolanda Diazen Gobernu "aurrerakoia-

ren" gezurrezko malkoak ere salatu behar ditugu, erabat lotsagarria delako gure kanpaldiak txalotzen dituzten bitartean Netanyahu arkak bidaltzen jarraitzea eta uko egitea Israelekin dituzten harreman politikoak eta komertzialak eteteari.

Netanyahuren eta bere konplizeen egitasmo hiltzaileak geldiarazteko, elkartasun internazionalista eta iraultzailea da bide bakarra. Gazteria eta langile klasea mobilizatzen garenean ez dago nor gu gelditzeko gai. Soilik herriak bultzaturiko borrokak, ikasle-mugimendua langileekin batuz, apartheid sionistaren aurkako greba orokorraren beharra ardatza izanik, makurrarazi ahal izango ditugu herri oso bat suntsitzearen erantzuleak.

Hauxe da kapitalismoa: genozidioa, miseria eta gerra inperialistak. Iraultza sozialistaren alde borrokatzea premia larria da, Palestinarentzat eta gizadiarentzat.



## PUNTU MOREA EXIJITZEKO PROTESTA FEMINISTA BAKETSU BATEN AURKAKO ERREPRESIOA, MÀGIC MERKATARITZA-GUNEAN

Urtebete igaro da Badalonako Màgic merkataritza-guneko komunetan gertatutako talde-bortxaketetatik. Amorrutako handiko urtea, familien minak eta instituzioek biktimekiko izan duten mespretxuak markatu duena.

365 egun daramatzagu neurriak eta protokoloak exijitzen, gotorleku horretan sexu-erasotzaileek zigorgabetasunez jokatzeko jarrai ez dezaten. Isiltasuna izan da nagusi egun guzti hauetan. Horregatik, nazkatuta, aski dela esan dugu berriro.

Maiatzaren 25ean, *Comitè de Mares contra la Violència sexual a Badalona, Lliures i Combatives* eta *Sindicat d'Estudiants-ek*, USTEC-STEko irakasleekin batera, hiriko ekintzaile feminista eta sozialek, eta sindikalista borrokalariak lagunduta, elkarretaratze bat egin genuen Màgic merkataritza-gunearen barruan, puntu morea eskatzeko.

Gure ekintza guztiz baketsua izan zen, pankartak zabalduz, biktimen aldeko aldarriak abestuz eta manifestu bat irakurritz.

Berehala, merkataritza-guneko segurtasun-zaindarien gaizkile gisa tratatzea erabaki zuten, gure adierazpen eta protesta askatasuna zapalduz, eta gogor oldartu ziren. Lau astakirtenek bortizki eraso zioten Sindicat d'Estudiants-eko Borja Latorreri, kolpatuz eta erakusleho baten kontra bultzatuz; eskuburdinak jarri zizkioten, erdialdeko barne-korridore pribatueta-raman zuten kolpeka eta larderiaz, eta legez kanpo atxiki zuten. Berak eta beste lankide batzuek kolpe handiak dituzte.

Horrela funtzionatzen du Màgic-ek. Eta Badalonako Udalak onartzen duelako funtzionatzen du horrela. Nola da posible puntu morea eskatzen dugunoi borti-



zki erasotzea? Nola liteke basakeria hau 2024an? Zerbait gertatuz gero, nola fidatu segurata horiekin? Imajina dezakegu nolako beldurra sentitu zuten bortxaketen biktimek eskuin muturreko gorila horiei

laguntza eskatu eta entzungor egin zitetenean.

Erantzukizunak argitzea eta berehala jarritzea eskatzen dugu. Exijitzen dugu:

1. Màgic merkataritza-guneko segurtasun-arduraduna berehala kargutik kentzea.
2. Erasotzaileak lau segurtasun-zaindaria berehala kaleratzea.
3. Màgic-en barruan puntu morea sortzea, merkataritza-gunearen ordutegian irekita egongo dena, baliabide ekonomiko eta material nahikoak izango dituen, eta genero-indarkerian espezializatutako gizarte-langileekin, biktimei eta behar duten emakume guztiei lagundu ahal izateko.

**Ez zaudete bakarrik!**

**Libres y Combativas taldeak kereila aurkeztu du Fiskaltzaren aurrean Javier Negre eta Vito Quilesen aurka**

**ZURE LAGUNTZA ETA LANKIDETZA BEHAR DITUGU | BAT UKITZEN BADUTE, DENOK ERANTZUNGO DUGU**



# LGBTBIfobiaren eta faxismoaren aurka:

# klaseko harrotasun iraultzailea!



Faxismoari ez zaio eztabaidatzen, borrokatu egiten da

LGTBI pertsonak gure bizitzako esparru guztietan jasaten dugun indarkeria jasanezina da.

Erasoek eta diskriminazioak ez dute etenik. Espainiako estatuan, kalkuluen arabera, 280.000 pertsonak erasoak jasan dituzte orientazio edo identitate sexualagatik azken bost urteetan zehar. %27,5 diskriminatua izan da eta %8,6k indarkeria fisikoa edo sexuala jasan du. Horiek es-

kura ditugun datuak baino ez dira. Onartezina, itogarria eta akigarria da.

Nahiz eta LGTBI eskubideetan aurrerapen nabarmena eman den gizartearen, bereziki gazteen artean, Voxen eskuin muturraren eta Alderdi Popularraren diskurtso erreakzionarioak erasoaren gorakada hauspotzen ari dira, %34 hazi direlarik. Kanean pairatzen dugun indarkeria izugarria da. Bereziki 2022an, aurreko urteetan baino %70 eraso gehiago erregistratu ziren. Gure ikasgeletan ere egoera benetan latza da: nerabeen %60k bullying LGTBIfobikoa pairatzen dute. Trans komunitateak nozitzen duen indarkeriaren datuak are lazgarriagoak dira.

Eskuin muturrak, urdinak zein berdeak, dozenaka autonomia-erkidegotan eta udaletan agintzen du, gure bizitzak benetako infernu bihurtuz. Instituzioetan, sare sozialetan edo telebistan zabaltzen duten ideologia atzerakoi eta homofoboak, etengabeko jazarpen mediaticoak, gu jopuntuan ezartzea du helburu, sektore erreakzionarioei gu eratzeko dei eginaz.

Abascalek eta bere lagunak gaixotzat jotzen gaituztenean eta "homosexualitatea eta transexualitatea hedatzen ari delako kezka" predikatzen dutenean; Justizia patriarkalak *Hazte Oir* elkartearen autobus transfoboaren aurka Sevillan protesta egin zuten ekintzaileei urteetako kartzela zigorra ezartzen dienean; Ayusok konbertsio-terapiak berrezarriko direla agintzen duenean; eskoletan gure eskubideen liburuak debekatzen dituztenean edota bi emakumek elkarri musu emateagatik haurrentzako filmak zentsuratzen dituztenean; "LGTBI doktrinamendua" salatzen dutenean eta Hetero Harrotasuna ospatzeko egun bat eskatzen dutenean... Horrek guztiak helburu argia du: Euren "España, una, grande y libre" ideologia arbuatzen dugunokin amaitzea, euren roletan eta familia tradizional kapitalistaren ereduaren sartzen ez garenokin amaitzea alegia.

2. ORRIALDEAN JARRAITZEN DU ▶

18. zenbakia

622 174 122  
askeetaborrokalariak@gmail.com  
www.libresycombativas.net



**EZKER  
IRAULTZAILEA**